

Ainara Arratibel, Tokiotik berriemaile

Andoingo kazetariari elkarrizketa, Tokioko Joko Olinpikoetara berriemaile lanetara joateko bezperan / 2-3

AIURRI

Ekain Tolaretxipirekin solasean


Aurtengo Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako irabazlea Leizaran institutuko ikaslea da. Senideak ditu, gainera, Andoainen / 16



Mikel Iturria
Euskaltel Euskadiko
txirrindulariari
elkarrizketa,
Vueltaren atarian / 10-11



**Iruna Gozalo eta
Nagore Huizi**
begirale lanetan
Urnietako
udalekuetan / 8



**Bizikleta zaharren
birziklapen tailerra
antolatu dute
Andoingo Leizaran
institutuan / 6**

barnE

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK	GORDELEKUAK
44€	97€
2 m ² / BEZa barne	5 m ² / BEZa barne

- ASKOTARIKO TAMAINA ETA AZALERAK
- BIDIOZANTZA 24 ORDU
- SARBOE ETENGABEA

605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Musbles Ibarbe
barn.eus

Mikel Arberas ANDOAIN**Non hasi zinen lanean, eta nola iritsi zara orain zauden lekura?**

Umetatik kazetari izatearekin amesten nuen, zehazki, kirol kazetari izatearekin. Kazetaritza ikasten hasi nintzen eta Aiurrik aukera eman zidan kirol arloan kolaborazioak egiteko. Karrerako azkeneko bi urteak, bekadun gisa aritu nintzen lanean Egunkarian eta itxieraren ostean, Berriako lan-taldean sartu ninduten. Bekaldia bukatu ostean, ordezkapenak egiten aritu nintzen. Ondoren, urteak eman nituen Berriako Uda Giro sailean, hau da, aisialdiari lotutako atalean. Gizartea atalean ere pare bat urtez lanean aritu nintzen, baina gero kirolera egin nuen jauzi. Harrezkero, lau urte daramatzat kirol sailean lanean. Aitortu beharra daukat edozein kirol kazetarirentzat ametsa dela Olinpiar Jokoetan lan egitea; ilusioz eta gogo biziz ekingo diot abentura horri.

Kirol kazetari baten ametsa betetzear zaudela esan genezake?

Orain arte, gauza interesgarriak buruz berri ematea egokitu zait; esaterako, Realeko neskek Granadan irabazi zuten titulua zuzenean bizitzeko aukera eduki nuen, eta oso berezia izan zen. Egia da ere Olinpiar Jokoetara joatea ametsa dela eta edozein kirol kazetarik nahiko lukeela.

Zer egin behar da zauden lekura iristeko?

Nire ustez, gakoa zailtasunen gainetik ilusioz lana egitea da. Asko informatzea eta eguneko albisteak jarraitzea ezinbestekoa da. Lana txukun egin behar da eta kirolariarengana iristea ezinbestekoa da.

Papereko edizioa beranduago argitaratzen denez, sare sozialen bitartez segituan informatu daitezke herritarrak; beraz, kazetariok bestelako zerbait eskaini behar diegu. Adibidez, kronika analitikoagoak edota kirolariei elkarrizketa pertsonalagoak. Kirol kazetaritzari sarritan egotzen zaio kirolariaren alderdi inpersonala soilik jorratzen duela; alabaina, kirolari horien atzean badaude istorio interesgarriak, pertsonalagoak. Hortaz, garrantzitsua iruditzen zait horra iristea. Ez hori bakarrik; iraunkorra izan behar da kazetaria, jakinda ez duela ordutegi finko bat. Gozatzen eta gustura lan egiten saiatu behar gara, ez dago besterik.

Kirol ikuskizun handiena, gertutik eta euskaraz

Ainara Arratibel andoaindarra Tokioko Olinpiar Jokoetan izango da Jakes Goikoetxea kazetariarekin batera. Kirol hitzordu esanguratsuenari buruz euskaraz informatzeko arduradun edukiko du Berriako kazetariak. Lan egun gogorak, bezain politak izango ditu aurretik



Ainara Arratibel Andoaingo kazetaria da. Laster doa Tokiara, Olinpiar Jokoen berriemaile berezi lanak egitera. **AJURRI**

Mundu zaila eta prekariora da kazetaritzarena...

Bai, egia da. Alde batetik, zailtasun ugari arlotzat dugu kazetaritza. Beste alde batetik, pribilegiatuak sentitu behar gara. Esaterako, nire kasuan, Olinpiar Jokoak euskaraz kontatzeko aukera edukiko dut. Hori kazetari gutxi esan dezakete. Kazetariok euskararen normalizazioan eta garapenean daukagun rola oso garrantzitsua da; horri guztiari balioa eman behar diegu. Gainera, zailtasun handiagoa izan ohi dugu, azken finean, erdaraz lan egiten duen kazetariak eduki zein informazio gehiago eskuratzeko aukera izango du bere hizkuntzan. Bestalde, euskal kazetariok edukiak itzuli egin behar ditugu eta kirolariek euskaraz ez dakitenean itzulpen lanean aritu behar gara.

Nola erreakzionatu zenuen Olinpiar Jokoetara joango zinela jakin zenuenean?

Pandemia aurretik jakinarazi zidaten Olinpiar Jokoetara joateko aukera edukiko nuela, eta, egia esan, sinistu ezinik ibili nintzen. Berria egunkariak urteak daramatza Olinpiar Jokoei buruz berri emateko kazetariak kanpora bidaltzen eta zu lan hori egiteko aukeratua izatea, benetan izugarria da. Egia da pandemiaren geroztik gauza ugari aldatu direla, ez dira ohiko Jokoak izango, baina bertan egotea sinestezina da. Oso pozik nago erakutsi didaten konfidantzagatik eta bultzada polita izan da maila profesionalean zein pertsonalean.

Noiz joango zara Tokiara?

Uztailaren 18an, igandean egingo dugu alde Tokiara Jakes Goikoetxeak eta biok. Bilbotik Frankfurtera bidaiatuko dugu eta, ondoren, zuzenean Tokiara joango gara. Abuztuaren 11n itzuliko gara, beraz, 22 egun munduaren bestaldean egonen gara.

Nola antolatuko zara Jakesekin kirolen berri emateko?

Egunero lanak banatuko ditugu. Bertako kirolariekin harremanetan egoten saiatuko gara. Ez hori bakarrik, proba nagusien

"SINESTEZINA DA, OSO POZIK NAGO ERAKUTSI DIDATEN KONFIDANTZAGATIK"



Berria egunkaritik gertuko jarraipena egingo dute. Bertara berriemaileak bidali dituzte. OLYMPICGAMES

gaineko informazioa helarazten ere ahaleginduko gara. Azken finean, Jokoak oso lotuta daude atletismoari, igeriketari eta gimnastikari; 100 metroko finala zuzenean kontatzen saiatuko gara, Simone Biles bezalako kirolarien jarduna azalduko dugu, edota igeriketari buruz informatzeko lanean arituko gara buru-belarri. Egia da aforoaren kontua nahiko konplexua dela, mugak ezarri dituzte eta eskariak egin behar dira, baina espero dugu toki guztietan lekua izatea.

Nola egingo duzue lan?

Ordenagailua soinean edukiko dugu une oro eta lan banaketa egingo dugu dagokigun gunetik bertatik lan egiteko. Horrez gain, erreportajeen bitartez Tokioko kulturaren eta errealitatearen berri ematen saiatuko gara. Hala ere, hori guztia ez da horren erraza izango, egungo egoera epidemiologikoa eta dauden neurri zorrotzak medio.

Jada, geure lehen 14 egunetako lan-plangintza bidali behar izan dugu antolakuntzara; zein egunetan eta non egongo garen azaldu behar izan dugu, eta tarte guzietan mugikorreko GPSaren bitartez kontrolatuko gaituzte. Beraz, esan bezala, neurri oso zorrotzak ezarriko dituzte.

Lana errazte aldera, aurreko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuten kazetariekin hitz egiteko aukera eduki dut. Oso egun bi-ziak izango dira eta lan handia egin beharko dugu, baina, era berean, oso polita izango da. Jakes eta biok goizean irtengo gara dagokigun gunera, eta bertan igaroko dugu eguna. Agian, egunen batean gune batetik

bestera mugitzea egokituko zaigu ere. Horrez gain, Berriako lankideei eguneroko lanak bidali beharko dizkiegu.

Tokio ezagutzeko aukerarik edukiko duzue?

Ezingo dugu turismoa egin. Une oro kontrolpean edukiko gaituzte. Erosketak esaterako, oso denbora gutxian egin beharko ditugu mugikorreko GPS bitartez kontrolatuta egongo garelako. Garraio publikoa ere ezin izango dugu erabili; hau da, antolakuntzak Jokoetarako garraio berezia jarriko du. Garraio horrek gune batetik bestera eta hotelera mugitzeko balioko du. Modu batera esateko, Jakes eta biok burbuila olinpikoaren barruan egongo gara, ez beste inon.

Esan duzunaren arabera, neurri zorrotzak hartzen ari dira, ezta?

Egoera epidemiologikoa baldintzatuta Olinpiar Jokoak oso

bereziak izango dira, zentzu guztietan. Lan handia eskatzen duen egoera da, beraz, Berriatik, aurretiaz, lan handia egiten ari gara: Hamalau eguneko lan-plangintza bidaltzeaz gain, hegaldien joan-etorrien ordutegiak bidali dizkiegu; bi aste lehenago gorputzeko temperatura hartzen eta APP batera igortzen hasi ginen; Tokiora joan aurretik bi PCR proba egin beharko ditugu eta lehen hiru egunetan konfinatu egin beharko gara, eta lau PCR gehiago egingo dizkigute. Esan bezala, neurri zorrotz ugari hartzen ari dira, baina era berean lasaitasuna helarazten dizute.

Olinpiar Jokoetan zein kirol duzu gustuko?

Kirol ugari ditut gustuko, baina bestelako kirolak ikusteko aukera hobeezina dira Olinpiar Jokoak. Oro har, atletismoa edo

gimnastika ez ditut gertutik jarraitzen, baina Jokoetan gustura jarraitzen ditut. Ikusmin handiena kirol horietan dagoela esango nuke eta, iruditzen zait, hitzordua aukera bikaina dela kirol berriak begiztatzeko; esaterako, badmintona edo waterpolo. Hau da, ikusgarritasun gutxiagoko kirolez gozatzeko aukera polita izan ohi dira Olinpiar Jokoak.

Kirol berriek debuta egingo al dute Olinpiar Jokoetan?

Jokoen kudeatzaileak modernizatze prozesuan lanean ari dira. Horretarako, aurtengoan skate boarding-a, surfa, eskalada, karatea eta beisbol softbola gehitu dituzte eta hurrengo jokoetan break-dancea sartu nahi dute. Esan beharra dago, 20 kilometroko ibilkerako proba kendu egin dutela. Apustua modernizatzea dela diote, baina eztabai-

da ugari sortu ditu erabaki horrek.

Futbola al da egunerokotasunean jarraitzen duzun kirol nagusia?

Futbola eta eskubaloia gertutik jarraitzen ditut, dena den, oro har kirol guztiak ditut gustuko. Hala ere, beste diziplina batzuetako kirolariak ezagutzeko, kirol gehiagoren gaineko interesa pizten da; nire kasuan horixe pasa da. Gauzak horrela, pilota eta arrauna gisako kirolak gertuagotik jarraitzen hasi naiz.

Emakumezko kirolariek zer esan handia eman zuten azken Olinpiar Jokoetan. Aurtengoan ere halaxe izango al da?

Parekidetasunetik gertu egongo da aurtengoan, %49 inguru izango dira emakumezkoak eta %51 gizonezkoak. Gainera, emakumeen kirola sarritan jorratu dut Berrian eta, iruditzen zait, hauek emakumeen Olinpiar Jokoak izango direla; izan ere, azken Jokoetan Michael Phelps eta Usain Bolt izan ziren izarrak, baina, orainoan, Simone Biles edo Alison Felix bezalako atletek har dezakete rol hori. Oso garrantzitsua da eraldaketa hori eta gutxinaka urratsak ematen ari gara, nahiz eta oraindik berdintasuna lortzeki urrun egon. Izen horiek hor egotea eta izarrez hitz egitean emakumezkoekin oroitzea oso polita eta garrantzitsua da.

Kirolari euskaldunak ere izango dira Tokion, ezta?

Egia esan, makina bat kirolari euskaldunek hartuko dute parte. Gainera, piraguismoan, talde kirolean edota golfean podiuma eskuratzeko aukera dagoela esango nuke. Rioko emaitzak hobetzeko aukera egon daiteke.



Simone Biles izango da aurtengo izar nagusietakoa. INTERNET

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Preso

Normalean lo potzolo egiten dut, etzan eta gutxira, eta komunera joateko beharra muturrekoa den arte. Bizilagunarekin txantxetan aritzen naiz, Elsa Pataky logelara sartuko balitz ere ez nintzatekeela jabetuko... Lerroon idazketa pasa den osteguneko gau mugituaren ondorio da. *Brain storm* edo ideia erauntsiaren antzeko bat eduki nuen ordu txikitán, ametsetan akaso. Bezperan Anne Lukin eta Gorka Urbizuren Lisboa abestiko doinuak entzun nituen lehen aldiz, eta estrofa itsaskorra pentsamendu guztietan agertzen zen: 'Eta orain libre naiz, haizea bezala, libre noa...'.
Ostegun gauak bereziak dira niretzat, irratiko lanak

kito asteari dagokionez, eta lankideekin txantxetan 'askatasuna' oihukatuz agurtzen naiz. Askatasuna eta libre. Edota libre eta preso. Hitz joko kuriozoak. Nire askatasun gertuko eremuan asko preso sentitzen baitira pandemiari lotuta. Sendi ugari egon dira Urnietan etxeratuta, nahi gabe preso. Zikloturista elkarteko lagunak Errioxan ibili ginen pasa den asteburuan, bizikletan eta ardo dastaketan, baina asteburuan Laruntze aldera joateko asmoa genuen, Aubisque eta Marie-Blanche igotzeko, eta ezin. Arauen preso daude kide asko, txerto pauta osoa bukatu gabe, eta PCRA egiteko gogorik ez,

Frantziako Biarno eskualdean barrena ibiltzeko.

Libre, dantzan ibili nuen oroitzenen kutxa gau gaizto hartan. Eta efemeride kuriozo batekin oroitu. Mende laurden Iñaki anaia zena hil zela. Mende laurden! 1996ko martxoan izan zen. Heroinak eraman zuen, bere belaunaldiko asko eta asko bezala. Iñaki guretzat, baina kale jendearentzat *Uper*, edo *Vomper*. Ez galdetu goitzen horien jatorriaz, ez baitakizkit. Andoainen ikasi zuen, eta han izeba eta lehengusuak bisitatzerako joaten naizenean, mahai bueltara hurbiltzen diren askok esaten didate: "zu Uperren anaia zara, ezta?". Eta 25 urte pasata, ba halako poz txikia sentitzen dut.

Anaia zenak gauza asko irakatsi baitzizkidan. Droga menpekotasunen preso zen, baina eguneroko gogor hartan bere askatasun momentuak lortzen asmatu zuen, eta irakurtzea gogorra badirudi ere, preso egote horretan aske sentitzen zen. Garbi zeukalako ez zeukala heroinaren hatzaparretatik ihes egiteko indarririk, kemenik, eta azken trantzean, gogorik ere ez. Joan zen, preso, baina aske, zer egiten zuen jakinda, berak hala erabakita. Alboan ezagutu nuena ezagututa, drogak urrun uztea lortu dut beti. Beno, droga ez legezkoak, edaria legezkoa baita. Nik eta nire bi lagun koadrila guztiak. Fenomeno kuriozoa, hori ere, 15 lagun pasa

baikara 1971 eta 1972ko kintoak.

Bi koadrila horietan abiadura ezberdina daramagu. 72koak ari gara, aske antzean, iraganean bezala elkartzen. 71koekin pixka bat atzeratzen ari da egoera, preso antzean pandemia eta bere ondorioekin, baina bueltatuko dira laster Hernaniko Otaño eta Santa Barbara elkarteetako bazkari eta afari oparo horiek. Preso aske baikara!

**LIBRE, DANTZAN
IBILI NUEN
OROITZAPENEN
KUTXA GAU GAIZTO
HARTAN**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Aile batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia. idadkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:




BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoainDARRA
euskaraz



Olatu berria irudikatzen duen garapen epidemiologikoa. IREKIA

Urnietako Udalak neurri osagarriak hartu ditu

Eremu gorrian sartzearekin batera, udalaren eskumeneko hainbat neurri hartu ditu

Erredakzioa URNIETA

Udalaren eskumenekoak diren hainbat erabaki hartu ditu Udalak, eremu gorrian sartzearekin batera. Besteak beste, kiroldegia eta igerilekua zabalik izango dira "protokolo guztiak zorrotz beteta". Ikasgelan eta Liburutegian mahai bakoitzean pertsona bakarra egongo da. Parkeak erabiltzeko ordutegia murriztea dago. Egoerak horrela jarraitu bitartean ezingo da udal-lokaletan ekitaldirik antolatu. Haur parkeak 20:00etatik 09:00etara itxita egongo dira.

gian mahai bakoitzean pertsona bakarra egongo da. Parkeak erabiltzeko ordutegia murriztea dago. Egoerak horrela jarraitu bitartean ezingo da udal-lokaletan ekitaldirik antolatu. Haur parkeak 20:00etatik 09:00etara itxita egongo dira.

"Izan gaitezen arduratsuak"

Neurriak zorrotz betetzeko deialdia luzatu dute: "Osasun-agintariak adierazitako prebentzio-neurri guztiak zorrotz errespetatu gero, eragin zuzena du guztien ongizatean".

- Erabili musukoa kalean 1,5 metroko distantzia bermatu ezin den kasu guztietan.
- Eskuak maiz garbitu.
- 1,5 metroko distantziak errespetatu.
- Saihestu pilaketak.
- Berrogeialdiak zorrotz egin.
- Sintomarik izanez gero, deitu osasun-zentrorra: Urnietako Osasun Zentroa: 943 00 66 80. Andoaingo Osasun Zentroa: 943 00 66 70.


Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Uztailak 7-13:** 19 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 213,50.
- **Ekainak 30-Uztailak 6:** 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,42.
- **Ekainak 23-29:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 26,69.
- **Ekainak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 20,02.
- **Ekainak 3-15:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 86,74.
- **Ekainak 2-8:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 173,47.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 180,14.

URNIETA

- **Uztailak 7-13:** 24 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 1175,71.
- **Ekainak 30-Uztailak 6:** 49 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 918,02.
- **Ekainak 23-29:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Ekainak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Ekainak 3-15:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 257,69.
- **Ekainak 2-8:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,06.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 2 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.



Ospitaleratzeen eragina oraingoz ez da kezkarria. IREKIA

Kasu positiboen igoera ikusgarria azken hiru asteetan

Udan sartzearekin batera ugaritu egin da kasu positiboen hazkundea, nagusiki gazteen artean

Erredakzioa ANDOAIN

Oldarraldi berria hemen da, eta dagoeneko koronabirusaren bosgarren olatua bizitzen ari gara. Ekaitz perfektuaren osagaiak, nagusiki, lau dira: ikasturtearen amaiera, musukoa erabiltzeko derrigortasunaren

amaiera, txertatu gabeko populazioa eta birusaren aldaera berria. Intzidentzia-tasa bereziki handia da gazteen artean, eta horren txertaketa azkartzeko prozedura hasita dago. Zainketa berezien unitateetan ez da oraingoz ondorioz antzematen.

Andoaingo eta Urnietako garapena

Andoain

- Ekainak 14-20** +0 | Intzidentzia-tasa: 20,02
- Ekainak 21-27** +3 | Intzidentzia-tasa: 20,02
- Ekainak 28-Uztailak 4** +10 | Intzidentzia-tasa: 86,74
- Uztailak 5-11** +13 | Intzidentzia-tasa: 153,46

Urnietako

- Ekainak 14-20** +0 | Intzidentzia-tasa: 193,27
- Ekainak 21-27** +1 | Intzidentzia-tasa: 16,11
- Ekainak 28-Uztailak 4** +42 | Intzidentzia-tasa: 692,54
- Uztailak 5-11** +26 | Intzidentzia-tasa: 1095,18

*ITURRIA: OSAKIDETZA



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.
- Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
- Atal bereziak: **BIDEO-PILULAK** | **DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s



Urnietako
udala



Erakusketa kolektiboa da. Artelan bakoitzaren ondoan ez da egilearen izenik aipatzen. AIURRI

Maila handiko artelanak, herriko artisten eskutik

Ingurumenarekiko kontzientzia piztea helburu duen erakusketa kolektiboa zabaldu dute Bastero Kulturgunean. Datorren uztailaren 30era bitarte Bastero Kulturguneko erakusketa gelan ikusgai izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Antropoceno erakusketako aurkezpenean agerikoa da parte hartzaileek ikusleagoaren kontzientzia eragin nahi dutela: "Oleoak eta pintura akrilikoak hondakin berrerabilgarriekin konbinatu eta gizakiaren eragina gure inguruan zenbaterainokoa den adierazi nahi izan dugu". Lurra eraldatzen ari da, txarrrako. Eta erantzuleak bilatzen hasita, artistek egia gordina plazaratu dute: "Hondaketaren erantzukizuna partziala da: munduko biztanleriaren %20ak sortzen du hondakinen eta isurien %70a, eta herrialde pobreenak dira nagusiki kaltetuak.

Artelanak nagusi dira erakusketan, baina irakur daitezke ere hainbat intelektualek hausnarketa interesgarriak.

Erakusketa kolektiboa

Erakusketan hainbat lan ikusteko aukera dago. Parte-hartzaileak honako hauek dira: Ana Mari Aranburu, Eduardo Arresegor, Angel Salvador Carrasco, Asun Garcia, Munia Garmendia, Itziar Gutierrez, Sebastian Herrero, Kontxi Kamio, Juanan Lazkano, Lorenzo Mendiola, Rosario Nazabal, Edurne Osa, Jose Manuel Rodrigo, Maria Luisa Santo Tomas eta Javier Toro.

ERAKUSKETA KOLEKTIBOA DA, ARRESEYGORREN ESKOLAKO KIDEEK OSATURIKOA


Uztailaren 30era bitarte, zabalik

"Antropoceno" erakusketa ikusgai dago Bastero kulturguneko erakusketa aretoan. Uztailaren 30era bitarte ikusgai egongo dira Eduardo Arresegor artistaren eta bere ikasleen lanak.

Erakusketaren ordutegia honakoa da: astelehenetik ostiralera, 18:30-20:00 bitartean zabalik izango da. Larunbatean goizez eta arratsalde zabalik (10:30-13:30 / 18:00-20:30. Igande eta jaiegunetan itxita egongo da.

UZTAILAREN 30ERA BITARTE ZABALIK DAGO BASTEROKO ERAKUSKETA GELAN

Lagin bat, pieza askoren artean



Iraola, Egunean Behin lehiaketako irabazlea

Euskal Herri osoko lehiakideen artean, Jon Iraola Treku andoaindarra izan da onena. "LeiO" erabiltzailearen izenean parte hartu du, eta lehen astetik erregulartasun handia erakutsi du

Erredakzioa ANDOAIN

Euskarazko APPa da Egunean Behin, eskuko telefonoarekin jokatzeko sorturikoa. Duen arrakasta handia da, milaka parte-hartzaileek jokatzen baitute. Jolasa zertan den ezagutzen ez dutenez, minutuko epean hamar galdera ahalik eta azkarren erantzun behar dira. Galdera bakoitzak aukera ezberdinak ditu, eta azkar eta ondo erantzuten denean puntuazio onena lortzen da. "LeiO" profilararekin lehiatzen aritu da Jon Iraola Treku andoaindarra, Egunean Behin lehiaketaren zazpigarren denboraldian. Maila bikaineko lehiakidea dela argi geratu da, erregulartasun handia erakutsi baitu hamar asteetan zehar. Indartsu hasi zuen lehiaketa, lehen asteko zazpi partiden ostean bera izan baitzen onena. Horri esker "Aiurri"ko saria lortu zuen, Aspilla baserriko produktu ekologiko-sorta.

Denboraldia amaitzeko finala falta da, ETB1ek zuzenean eskainiko duena. Irailean, gauzak ondo, Egunean Behin lehiaketaren denboraldi berria martxan jarriko da. "Aiurri" taldean jokatzeke aukera berria, beraz.



Jon Iraola Treku andoaindarra, Aspillako saskiarekin. AIURRI

"Biba egunean behin" lehiaketa berezia

Ostegun honetarako saio berezia antolatu dute, "Biba Egunean Behin" izenekoa. Zuzeneko finala izango da, ETB1en eskainiko dutena. Gaueko 21:15ean hasiko da emanaldia. Zazpigarren denboraldiko finala telebista bidez ikusteko aukera izango da. Ikusteko eta parte hartzeko, deitzaileek iragarri dutenez: "Nork bere etxetik mugikorrarekin zuzenean jokatzeke aukera izango du".



Sukia eta Arzallus telebista saio bereziko aurkezleak izango dira. ETB

Laguntzak ikasleentzat

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak dirulaguntzak eskaintzen ditu EHUK, UEUK eta HIK HASIK antolaturiko udako ikastaroak euskaraz egiten dituztenentzat. Baldintzak honakoak dira: Andoainen erroldatuta egotea, 30 urte edo gutxiago izatea eta %100eko asistentzia egiaztatzea. Informazioa: 943 300 831 / euskarazerbitzua@andoain.eus.



AIURRI



UDALA

Txikizioa Otieta

Aurreko astean Leitzarar Bisitarien Etxean txikizioa egin zuten, komun publikoetan zehazki. Kalteak handi samarrak izan ziren, eta hurrengo orduetan konpondu zituzten. Udalak jokaera zatar hori deitoratu zuen, txikizioak ondorioak dituela erantsiz. Udalaren ustez, txikizioek "andoaindarrak bidegabe zigortzen dituzte".



AIURRI

Hiribus zerbitzua udan

Gogoan hartu behar da asteburu eta jai egunetan Otieta doan errepidea itxita izango dela, ibilgailuentzat. Sei joan-etorri egingo ditu udan. Orduak, hauexek: 10:00 / 11:00 / 12:00 / 17:00 / 18:00 / 19:00. Geltokiak, aldiz: Ambrosia Olabideren pareko geltokia; Kale Nagusia (Bastero); Kaleberria (Nafarroa zubia); Zumea Plaza; Aiztondo kalea; Olazar parkea; Otieta.



Tailerrean parte hartu duten zenbait ikasle, bi irakasleekin: Eros, Liher (irakaslea), Mustapha, Andres, Koniba, Aziz eta Begoña (irakaslea). AIURRI

Bizikletaren bigarren aukera

Bizikleta zaharren birziklapen tailerra antolatu dute Leizaran Institutuan, 2020-2021 ikasturtean. Arrakastatsua suertatu da tailerra, eta bertan parte hartu duen ikasle bakoitzak bizikleta bat eraman du etxera, berri baten antzera

Xabier Lasa ANDOAIN

Liher Unanue, Gorka Agirrezabala eta Josune Iñarra irakasleek gidatu dute tailerra, eta eurek eman dizkigute xehetasunak. Unanuek adierazi duenez, tailerrari ekin aurretik, Agirrezaba-

lak eta biek bizikleten konponketaren gaineko ikastaro bana egin behar izan zuten: "Nola edo hala moldatu ginen. Egia esan, Gorka langintza horretan bolada batean lanean aritutakoa zen eta, bizikleta zalea denez, nahiko

trebatua zegoen horien mekanikan; neuk, Lasarten bizikleta denda daukan lagun batekin ikastarotxo egin nuen".

Lehen formakuntza hori egin da, hurrena bizikleten bilketari ekin zioten irakasleek eta ikas-

leek elkarlanean. "Zenbait pauso eraman genituen aurrera tailerraren asmoak zeintzuk ziren azalduz: institutuaren ingurukoei eskaera egin genien, Aiurri aldizkarian iragarkia jarri genuen, eta, Andoaingo Garbigunerekin harremanetan jarri ginen. Era horretan, zakarretara botata zegoen edo botatzekoa zen bizikleta zahar mordo a pilatu ahal izan genuen Leizaran institutuko biltegian".

Bizikleta zahar horiekin egin zuten lan prozesua kontatuz jarraitu du hizketan Liher Unanue irakasleak: "Polita izan zen lanketa guztia, hasi eta bukatu. Behin bizikletak gure esku egon, piezaz-pieza erabat desmuntatzea izan zen hurrengo ekimena. Hori eginda, normalean erabat herdoilduta zeuden kuadroak hartu, eta lixatu, inprimatu eta gainetik pintatu egin genituen.

Eta azkenean, piezaz pieza berriro osatzeari ekin genion. Zenbaitetan, bizikletak hain zaharrak ziren ezen hautsita zeuzkaten piezen ordezkorik ezin genituela topatu merkatuan; horrelako kasuetan, baztertuta geneuzkan beste bizikletekin baliatu gara, despiezea egiteko".

Josune Iñarrak ikasleen parte-hartze aktiboa azpimarratu nahi izan du, "zakarretatik erreskatatutako bizikletak erabilgarri bihurtu dituzte, eta lan horretan protagonista izateak ematen duen poza eta satisfazioa sentitzen dute; harro daude beren buruarekin. Gainera, bizikleta batekin doaz etxera, eta ziurtasun osoa daukate egunean batean bizikleta matxuratzen bazaie, eurek jakingo dutela konpontzen".

Bederatzi bizikleta birziklatu dituzte guztira, eta horietatik bi elektrifikatu egin dituzte.



AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

• **Astero zozketa:**
KMO produktuez
betetako otarra.

• **Saritutakoak:** "Leio",
"Ainara", "Joxemi",
"Izaro" "Jonathan",
"Odile", "Andriu",
"Saioa", "Ane"
eta "Ainara".





Irune Gozalo eta Nagore Huitzi begirale lanetan ari dira, Urnietan. AIURRI

“Izugarri ikasten da umeeekin”

IRUNE GOZALO ETA NAGORE HUIZI EGUZKITAN BLAI UDALEKUAK

Adin tarteka banatuta eta protokolo zorrotzez ari dira lanean. Hala ere, elkarrekin udako goizez gozatzeko aukera dute, askotariko ekintzak egiten baitituzte

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ikasturtea amaitu dute berriki Urnietako hurrek. Hala, udari ekitearekin batera eman zitzaizen hasiera udalekuei. Goizero-goizero batzen dira, eta aukera paregabea dute umeei lagun berriak egiteko, bai eta askotariko hitzorduez gozatzeko ere.

Nagore Huitzi eta Irune Gozalo andoaindarrak bertan dira lanean.

Eguzkitan Blai udalekuetako begiraleak zarete biak ala biak.

Nagore Huitzi: Eguzkitan Blai lau adin tartetan banatzen da: txiki-txikiak (3-5 urte), txikiak (5-6 urte), ertainak (6-8 urte) eta handiak (8-12 urte). Nork bere begiraleak ditu, eta taldeka egiten ditugu ekintzak.

Irune Gozalo: Interesgunea daukagu, guztientzako abiapuntu komuna, Kukurbita txorimaloa.

N.H.: Txoriak gustatzen zaizkion txorimaloa da Kukurbita; astero-astero, hurrei bere mezu bat irakurtzen diegu. Hori horrela, misterio kutsua emateko istorioei, begiraleak bat Kukurbita dela esaten diegu umeei, eta egunero-egunero saiatzen dira asmatzen ea gutako zein den txorimaloa.

I.G.: Herriko zenbait tokitan egiten ditugu ekintzak. Nagore eta

biok Saroben gaude, ertainak, ostera, Lourdes Iriondo musika-eskolan, handiak Egapeko Bigarren Hezkuntzako eraikinean, eta, azkenik, txikiak eta txiki-txikiak Egapeko Lehen Hezkuntzan. 6-8 bitarteko adineko haurrekin egoten gara gu.

N.H.: Begirale gisa lanean lehen aldia dugu Irune eta biok. Lehenago, praktiketan aritu izan gara. Nire kasuan, Urtxintxaren "Parketarrak" proiektuan ibilitakoa naiz, baina oso bestelako formatua daukate.

Aurtengo uda, koronabirusa medio, berezia izaten ari al da?

N.H.: Aurreko urtean egin nituen praktikak, pandemia bete-betean, hain justu. Ondorioz, neurri oso zorrotzak genituen; esaterako, taldeak adinka banatu beharrean, familiaka banatu genituen. Hala, burbuilak ere seikoak ziren. Igerilekura-irteera eta tankerako txangoak ezin genituen egin. Aurten, aldiz, malguagoa da: astero igerilekura joaten gara; horrez gain, Leitzarnera, Ekogunera eta beste zenbait tokitara irteerak egiten ditugu. Taldeei dagokienez, elkarrekin jolasak egiteko aukera handiagoa dugu. Musukoaren erabilera, besteak beste, oso barneratuta daukate hurrek, bai eta hamaiketakoan segurtasun-tartea manentzeko ohitura eduki ere.

Neketsua bihurtu al du eguneroko jarduna pandemiak?

N.H.: Gure kasuan, positibo bakarra izan dugu, begirale batek eman zuen. Alabaina, aurrez ezarrita daukagu protokolo jakina, eta, beraz, ez zen arazorik egon. Neketsua ez nuke esango, egoera oso barneratuta dugulako.

I.G.: Niri ere ez zait zamatsua egiten koronabirusaren egoera lan egiteko, alegia, ez da traba izaten ari. Musukoaren erabilera da oztopo handiena, baina positiboan agerpenarekin ez gaude kezkatutik. Aldez aurretik, gainera, Nagorek esan bezala, protokolo bat daukagu egoera konplexuei erantzuteko. **N.H.:** Musukoaren erabilera derrigorrezkoa da. Horregatik,

"MUSUKOAREN ERABILERA OSO BARNERATUTA DAUKATE HAURREK"

NAGORE HUIZI, BEGIRALEA

gutako inork positibo emango balu, kutsatze-arriskua oso baxua litzateke, segurtasun-tarteak ere errespetatzen baititugu.

I.G.: Gainera, oro har, kalean egoten gara. Egoera ez da arriskutsua. Esaterako, begiraleak COVID-19an positibo eman zutenean bere haur-taldea ez zen etxeratu, ez zirelako kontaktu zuzenak izan.

Goizero-goizero hitzartzen zarete haurrekin. Nola ikusten dituzue?

I.G.: Ume batek aipatu zidan egoera honetan udalekuak aspergarriagoak direla, hots, pandemia aurreko egoeran gauza gehiago egiten zitzutela, eta dibertigarriagoa zela. Nabari da haurrengan pandemiaren eragina.

N.H.: Oso aktibo daude. Antolatu izan ditugu erlaxazio-tailerrak, baina gure taldean, adibidez, ezinezkoa da, izan ere, oso aztoratuta daude.

Udalekuak aukera ederra, hortaz, lagunekin egoteko eta hamaika plan egiteko.

N.H.: Hiru txandatan banatuta daukagu antolatuta udalekuak, eta gurasoek libreki aukeratzen dute zein txandatan etorriko diren haurrak gurera. Ondorioz, mugimendua dago, haurrak joan-etorrian daudelako, eta horrek talde-antolaketa aldatzen du astetik atera. Horrela, beraiek ere taldekide berriak ezagutzen dituzte.

I.G.: Hori ez ezik, taldeen artean ere ekintzak egiten ditugu batera, eta aberasgarria da hori, elkarreragina sustatzeko eta haurrak elkarren artean ezagut daitezen.

Zer ematen dizue zuei udalekuetan lan egiteak?

N.H.: Umeekin lan egitea oso gustuko dut. Izugarri ikasten da umeekin; espero ez dituzun gauzak egiten dituzte; haurrengandik badugu zer ikasi, oso aberasgarria da eurekin lan egitea. Haurren jarrerak pizten dit niri udalekuetan lan egiteko gogoia.

I.G.: Bizitasuna ematen dute hurrek, energia asko dutelako. Oso gustuko dut haiekin hitz egitea, galderak egitea eta beren burutik zer igaro den jakitea.

"EKINTZAK SUSTATZEN DITUGU ELKARREN ARTEAN EZAGUT DAITEZEN"

IRUNE GOZALO, BEGIRALEA



Urteko hirugarren egonaldia du Iturriak, Sierra Nevadan. Altuerara egokitzen ari da prestaketa saio gogorrek eginez, eta atseden hartuz. Hori da bere egunerokoa altuerako egonaldietan. ITURRIA

“Vueltako azken bi asteetara fresko, lehiakor iritsi nahi dut”

MIKEL ITURRIA EUSKALTEL EUSKADIKO TXIRRINDULARIA

Sierra Nevadan dago, altuerako prestakuntza egiten hiru astez, eta berora egokitzen, Espainiako Vuelta hegoaldean ibiliko baita aste eta erdiz; abuztuaren 14an hasiko da

Andoni Urbistondo URNIETA

Ziklistek altuerako prestakuntzak egiten dituzte sarri. Egonaldi luze samarrak dira, bizpahiru asteak, eta sasoi fintzeko helburua dutenak. Etxetik urrun, bizitza monotonoa egiten dute txirrindulariek, nekagarria, baina errendimendua hobetzeko bidean funtsezkoak. Iturriak denboraldi honetako hirugarren stage-a du altueran, eta larunbatean bueltatuko da etxera, hilaren 25ean Ordizian lehiaketara bueltatu eta Vueltari begira erritmoa hartzeko.

Sierra Nevadan zaude, altuerako prestakuntza egiten. Zer moduz doa?

Luze samar dagoeneko. Hiru asteko egonaldia da, denboraldiko hirugarrena jada. Astun samarrak izaten dira egunak aurrera doazen neurrian, baina tira, badakizu egin beharreko gauzak direla.

Non zaudete, zehazki?

CAR edo Errendimendu Handiko Zentro bat dago Sierra Nevadan (Granada, Espainia), 2.320 metrora. Instalakuntzak oso egokiak dira kirolariontzat, eta ziklista asko etortzen da. Eliteko kirolarien izaera dugunez, baldintza ekonomikoak onak dira hemen egonaldi luzexkak egiteko. Espainiako Vueltak aste eta erdi egingo du Mediterraneo inguruan, eta Madrildik hegora, abuztu betean, eta berora ohi-tzeko ere toki ona da.

Beroa iritsi al da bertara?

Bai, bai, hemen ez du barkatzen. Bailarara jaisten garen egunetan, eguerditik aurrera zaila da bizikletan ibiltzea, 40 gradura gerturatzen baita temperatura. Normalean goi aldean ibiltzen gara, 1.700 eta 2.500 metroen artean, beroarekin ez kiskaltzeko. Eski estazio inguruan ere bada 6-7 kilometroko zirkuitu

antzeko bat, eta hor bueltaka ibiltzen gara. Bestela Hoya de la Mora izeneko parajera igotzen gara, 2.500 metrora. Ahal bada pixka bat gehixeago ere bai, Veleta mendira daraman pista-tik, baina errepidea ez da ona.

Altuera handia da hori. Oxigenoa- rekin-eta ondo?

Normalean 2.500 metrora buelta ematen dugu. 2.300 metrora egiten dugu lo, eta gorputza ohitu egiten da altuerara azke-nerako.

Nolako da zure egunerokoa Sierra Nevada?

Monotono samarra. Goizean jaiki, gosalduta, prestatu, eta 09:30ak aldera entrenamendua hasten dugu. Bakoitzak daukan lan saioaren arabera, bazkalor- durako edo bukatzen dugu. CAR egoitza dagoen tokian ere beroa egiten du, ez bailaran bezain- beste, baina komeni eguneko ordu beroenak saiheste. Baz- kaltzen dugu, atsedena hartu, orain Tourra ikusi, lasai egon, afaldu eta ohera. Gorputzak atsedena behar du, entrenamen- du gogorrek egiten ditugulako, eta ordu asko pasatzen dugu indarrak berreskuratzen.

Aisialdi aukeraren bat baduzue bertan?

Pradollano herria daukagu ger- tu, eta batzuetan kafetxo bat hartzera joaten gara, arratsalde partean, beroa gutxitzen hasten denean. Baina gehienetan CAR egoitzan bertan geratzen gara, gure gelan lasai. Entrenatu eta atsedena hartu, horiek dira egu- neroko osagai nagusiak.

Espainiako Vueltak Almerian, Velefique ganean egingo du geltokia, baita Valdepeñas de Jaen-en. Eta- pa horiek ikuskatzeko aukera izan duzu?

Ez. Hemen distantziak luzeak dira, eta autoarekin hara eta hona ibiltzeko gogo handirik ez dugu izaten. Bi urte atzera eta- pak zehatzago aztertu nituen, aurtun momentuz gainera bakarrik aztertu ditut. Nire ardu- ra bakarria Vuelta hasierara ahalik eta ondoen iristea da, eta gero gerokoak.



Onenengandik hurbil egon nahi du sailkapenean. Etapei lehenetsuna emanda. ITURRIA

Oraindik hilabete luze falta da Vuel- ta hasteko, nola iritsiko zara?

Sentsazio onak ditut. Konfiantza daukat. Sasoi puntu egokian iritsiko naizela uste dut, eta behin lasterketa betean, sortzen diren aukerak ondo baliatzea da gakoa.

Zein izango da zure erroka Vueltan? Etapak edo sailkapen nagusia?

Etapen bila joango naiz. Etapa egokiak hautatu behar ditut, ihesaldi ona hartu eta irabazten saiatu. Gero, eta ahal bada, jauzi bat eman, eta onenengandik hurbil egon sailkapenean. Baina etapei lehenetsuna emanda, beti

ere. Vueltako azken bi asteeta- ra fresko, lehiakor iristeko es- perantzarekin antolatu dugu prestakuntza guztia, ea asmatzen dugun. Ez dut intentsitate han- dirik sartu, lan saioetan, Vuel- ta bukaerara hobeto iristeko. Itxuraz aurtengo Vueltako lehen astea beste urteetan baino la-

"ETAPEN BILA JOANGO NAIZ. AURTENGO VUELTAN ERE PROTAGONISTA IZAN NAHI DUT"

saiagoa izango da. Etapa lauak daude, Picon Blancoko bukaera izan ezik, Burgosen, baina ber- tan, eta gauzak normal, sailka- pen nagusiko txirrindularien artean behar luke etapa garai- penak. Gero akaso ihesaldia iritsiko da, ezin jakin. Ziklismoa, dena den, ez da matematika. Lehen astean ihesaldi aukeraren bat baldin badago, ba saiatuko naiz. Ihesaldi gehiago hartzea gustatuko litzaidake, aukera gehiago izateko. Orain bi urteko Vueltan bi ihesalditan sartu nintzen, biak onak izan ziren, maila handiko jendea sartu zen. Protagonista izan nahi nuke. **Beroaren gaia aipatu duzu. Zuen jarduna baldintzatzen duen fakto- re garrantzitsua da.**

Bai, ez gaudelako ohituta. Ho- rregatik etortzen gara Espainia hegoaldera, hemengo baldintze- kin ohitzeko. Duela bi urte Ma- lagan hasi zen Vuelta, eta lehen astean sekulako beroa egin zuen. Kosta zitzaidan moldatzea, ha- sieran, baina gero gorputza ohitu zen. Aurtun abuztuko az- ken 10 egunetan Espainia he- goaldetik ibiliko gara, bero handia egin dezake, eta gehiegi ez sufritzea espero dut. Iraila hasten denerako Espainia ipa- rraldean eta Galizia aldetik ibiliko gara, eta gaitzerdi, han gusturago ibiliko gara.

Bi urte atzera Urdazubini bukatu zen etapa zeneukan begiz jota, eta baita asmatu ere. Bakarren bat hautatu al duzu aurtengo Vueltarako?

Ez, ez daukat etapa bat marka- tuta. Etapa askotan izan nahi nuke protagonista.

Espainiako Vueltako jardunak fin- katuko du zure denboraldiaren azken nota, baina orain arte egin- dakoak ze balantze egiten duzu?

Euskal Herriko itzulia hasi arte nahiko gustura ibili nintzen. Azaroa geldirik eman nuen le- pauztaia hautsita, eta horrek plangintza eraldatu zidan apur bat. Pedal kolpe on-onik ez nuen izan Itzulian, baina ekaina er- dialdean ondo aurkitu nintzen. Protagonista izan naiz lasterke-

ta batzuetan, baina zorte apur bat falta izan zait. Mallorcan garaipenetik gertu egon nintzen. Hankak baneuzkan gorago ego- teko, baina aurkariak ere onak ziren. Lehiakor sentitu nintzen, eta konfiantzarekin nago.

Zein egutegi izango duzu Vuelta hasi bitarte?

Larunbata izango da nire azken eguna Sierra Nevada, hemendik etxera. Han entrenatzen jarraitu, eta Ordiziako Sari Nagusia korritu uztaillaren 25ean. Aurrean ibili nahi nuke. Hileko azken egunean Donostiako Kla- sika egingo dut, eta ondoren Burgosko Itzulia, abuztuaren 3tik 7ra, eta gero Vuelta, abuz- tuaren 14tik irailaren 5era. Hi- labete eta erdi da, bete-betean egin beharrekoa. Erraza ez, batez ere mentalki, baina prest nago.

Tourra ikusten ari zarela esan duzu. Gazteak nagusi, maila bikaina ematen ari dira. Ikusgarria izaten ari da proba.

Beno, gazteak, eta zaharrak ere bai. Dena ez dute gazteek egin. Hor dago Mark Cavendish, Richie Porte ere txukun aritu zen Dauphinen... Ni neu ere gero eta indartsuago sentitzen naiz, eta 29 urte ditut dagoeneko. Orain dela 10 urte txirrindulari onak zirenak onak izaten segitzen dute oraindik, hori ez da aldatu. **Inoiz baino azkarrago doaz, inoiz baino maila hobea omen dago tropelean. Ados, iritzi horrekin?**

Batez ere maila ona, abiadura, itzuli txikietan nabaritzen dela esango nuke. Itxuraz sekulako parte hartzea izango du Vueltak, talde indartsu asko itteeran. Hori ona da zuretzat, ez?

Ikusi egin behar. Normalean talde bat nagusi izatea, laster- ketako aginte-makila hartu eta kontrol lana egingo duena ona da guretzat. INEOS-ek hartu zuen ardura Giroan, eta ihesal- di asko arrakastatsuak izan ziren. Talde indartsuek laster- keta kontrolatu nahi izatea ona da ihesaldiak bilatzen ditugu- nontzat.



ESPAINIAKO VUELTA
AIURRI.EUS | @aiurri





ONDARROA

Eskualdeko arraunlariak

ARRAUNA ARC ligan lehiatzen ari dira Jon Jauregi andoainarra eta Imanol Olasagasti adunarra. Txapelketa txukuna osatzen ari dira eta jada hainbat estropada egin dituzte. Azkenekoa ostiralean izan zen eta 7. postuan sailkatu ziren 13 traineren artean (20:04,07). Nabarmendu beharra dago, sailkapen orokorrean 4. postuan daudela 62 punturekin.



EITB

Mendizabal lehen postuan Plazandreak saioan

PILOTA Indartuta irten da Mikel Inuntziagaren taldea ligaxkaren bigarren itzuliaren hasieran

Erredakzioa ANDOAIN

Lehen partidaren norgehiagoka ikusgarria eskaini zuten Miren Larrartek eta Olatz Arrizabalagak (9-12).

Dena den, Su Berri taldeko aurrelariak garaipen garrantzitsua eskuratu zuen, Capellanen ordez aritu zen Arrate Bergararen laguntzarekin, 12-7 nagusitu baitziren Nora Mendizabal eta Olatz Arrizabalagaren aurka.

Hirugarren partidaren Mirian Arraiza eta Madalen Etxegarai aritu ziren elkarren aurka eta oñatiar gaztea nagusitasunez gailendu zen, 6-12ko emaitzarekin, eta jardunaldiko garaipena Mikel Inuntziagaren taldeari eman zioten.



UTS

Erremonteak ez du etenik

ERREMONTEA Txapelketa ugari ospatzen ari dira Hernaniko Galarreta frontoian, eta tartean da ere Imanol Ansa urnietarra. Maila handia erakusten ari da azken hilabeteetan eta, hala, finalez final jauzi egiten ari da. Ez hori bakarrik, erremontea kirol munduan zer esana ematen ari dela dirudi eta, beraz, hedabideetan duen presentzia areagotzen ari da.



GAZTELEKU

Etxezarreta finalean

PILOTA Gazteleku Pelota Elkartek presentzia izango du Amasa-Villabonako Santio txapelketan; izan ere, Adur Etxezarretak finala jokatu du uztailaren 28an Urruzola profesional ohiarekin batera. Horrez gain, Eneko Beloki andoainarrak ere finalerdirako txartela lortu dezake gazteen mailan, biharko partida irabaziz gero. Argazkian, Urruzola eta Etxezarreta.



ANGEL ALVARO

Duarte, lasterketaz lasterketa

TRIATLOIA Iñigo Duartek Alvaro Hiriko triatloiean parte hartu zuen pasa den asteburuan: 20km txirrinduan, 5km lasterketa eta 750m igeri. Hasieratik maila ona erakutsi zuen, batez ere, igeriketan eta txirrinduan, goiko postuetan lehiatzen ari zen. Baina azken txanpan 9. postuan lasterka ari zela txakalaldiak eman zion eta ezin izan lasterketa amaitu.

Donostiako Klasikoak Andoain eta Urnieta zeharkatuko du

Uztailaren 31n goi mailako txirrindulariak bertatik bertara ikusteko aukera izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Ibilbidea 224 kilometrokoa izango da. Klasikoaren lehenengo zatian, Gipuzkoako kostalde osoa zeharkatuko da, eta, gehienbat, laua da. Ihesaldirako eremu

ona den arren, lehia handikoa izango da. Laisekak egin du ibilbidea eta honela definitu du lasterketaren amaiera: "Lasterketaren bigarren zatian, mendia agertuko da, Jaizkibetetik eta

Erlaitzetik igarotzean. Indartsuenek zeresan handia izango dute lasterketaren bilakaeran. Txirrindulariak helmugatik igaroko dira Murgilerako azken igoerari ekin baino lehen. Igoera laburra den arren aldapa gogor-gogorak dituenez, taldea banatuko du ezinbestean. Gailurretik, 8 kilometro-edo gertuko dira helmugarako, eta, horren ondorioz, garrantzitsua da ondo kokatuta joatea Igeldotik jaitsitakoan".



Klasikoa, artxiboko irudian, Aduna-Sorabilla aldetik igaro zenean. AIURRI



Aiurri.eus, udako albistegia



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 15

ANDOAIN Erakusketa

"Antropoceno" pintura erakusketa ikusgai izango da. Artearen esperientzia ekologikoa ikusgai izango da, beraz.

Uztaila osoan.

URNIETA Udal informazioa

Lekaioko, Sarobeko eta Udal liburutegiko ordutegia egokitu dute.

Ordutegia: 09:00-14:00.

URNIETA Lan eskaintza

Onbizi merkataritza-elkartea merkataritza dinamizatzeaz eta kudeatzeaz arduratuko den pertsona baten bila dabil. Lanaldi erdiko hitzarmena, sei hilabeteko iraupenarekin.

Info: urnietaonbizi@gmail.com.

OSTIRALA 16

ANDOAIN Musika

Amak musika taldearen emanaldia, "Kale Giroan" zikloaren barnean. Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano dira Amak eta disko berria aurkezten ari dira. Trikitixa eta panderoa lagun hartuta, emanaldi bizia eskainiko dute.

21:30. Goikoplazako frontoia.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Dantza

GenEroa ikuskizuna. GenEro ikuspegiaren inguruko lanketa,



lazko edizioko argazkia. AIURRI

ANDOAIN Urmuga jaialdia Andoainera iritsiko da

Mendizaletasuna eta musika uztartzen dituen Euskal Herriko ekimenak bigarren edizioa du, aurtengoa. Eta geldialdietako bat Leitzarar bailaran egingo dute. Et Incarnatus hari orkestrarekin batera, hainbat kantari ezagun. Migel Zeberio zuzendutako orkestrak hainbat belaunalditako pop-rock kantariak izango ditu lagun: Aitor Mendiluze, Juantxo Arakama (Glaukoma), Xendarineko ahizpak, Mikel Moreno (Kauta), Idoia Azurmendi eta Niko Etxart. Antolatzaileek adierazi dutenez, "abesti propioak interpretatuko dituzte, euskal kantagintzako klasikoez gain, inoiz ez bezala. Ikuskizun horrek, zalantzarik gabe, adin guztietako ikusleak erakarriko ditu".

Uztailak 23, ostirala. 18:00 Otieta, Leitzarar.

originala bezain berritzailea den dantza ikuskizun eta mediazio parte-hartzaile bidez proposatzen du Kimua Dantza Kolektiboak.

18:00 Otieta, Leitzarar.


OSTEGUNA 22

ANDOAIN Plenoa

Andoaingo Udalaren osoko batzaraldia.

19:00 Udaletxea.


ZINEMA

**ANDOAIN****ONDARRETA**

Udan ez da zinema emankizunik izango Bastero Kulturgunean. Udan, aldiz, Zinema kalean zikloa antolatu dute Gazte Lokaletik.

Agur Etxebeste

Uztailak 15, osteguna. 22:00. Ondarretako jolastoki irekia.



SINOPSISIA

**Agur Etxebeste!**

Zuzendariak: Telmo Esnal, Asier Altuna. **Aktoreak:** Ramon Agirre, Elena Irureta, Iban Garate, Paco Sagarzazu, Iñake Irastorza, Ane Gabaraín, Aitzpea Goenaga, Javier Tolosa. **Herrialdea:** Euskal Herria (2019). **Iraupena:** 90 min. **Generoa:** Umorezko filma.

Etxebestetarren bigarrena

Patrizio Etxebeste alkatetza uztera behartuta dago. Udaleko agintea ez galtzeko asmoz, Maria Luisa bere emaztea

herriko lehen emakumezko alkatea izendatzen du. Maria Luisak oso serio helduko dio lan berriari.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazioa.
- Sartu, **Aiurri Urnieta** edo **Aiurri Andoain** kanalean.
- Batu zaitetz eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA





Lasarte-Orian egin zuten agerraldia, eskualdeko ordezkari guztiek. TXINTXARRI

Sarek uda honetarako antolatutako ekitaldiak

Sare mugimendua lanean ari da euskal presoek eskubideen alde. Aste honetan Buruntzaldeko ordezkariak agerraldia egin zuten Lasarte-Orian, gaixorik dauden presoek egoera salatzeko eta mobilizazio berriak iragartzeko

Erredakzioa LASARTE-ORIA

Eskualdeko agerraldia egin zuen Sarek, Lasarte-Oriako anbulatorioaren parean. Larriki gaixo dauden hemeretzi euskal presoak izan zituzten gogoan. Eta, horrez gain, datozen asteetako hitzorduen berri eman dute. Bereziki bi nabarmendu zituzten: hilabete amaierako Bizikleta Itzulia, eta abuztuaren 21ean Donostian egingo den manifestazioa.

Sortu zenetik, Sare lanean ari da euskal presoek eskubideen

alde. Lasarte-Oriako anbulatorioaren parean elkartu ziren eta tokia ez zuten ausaz aukeratu. Larriki gaixo dauden euskal presoek egoera ekarri zuten gogora, Ibon Fernandez Iradi lasarte-oriatarrena eta Garikoitz Arruarte hernaniarrarena bereziki: esklerosi anizkoitza, eta aldebiko ubeitis akutua eta espondiolartropatia dituzte, hurrenez hurren, duela bederatzita eta hamasei urtetik. Donetz Iradi osasun-langileak aipatu zuzenez, "arreta multidiziplina-

rra jaso behar dute biek, iraunkorra, eta zenbait adituk parte hartu behar dute bertan: fisioterapeutek, neurologoek, erreumatologoek... Gaixotasun horiek degeneratiboak dira, hobera ez dute egiten, eta behar bezala tratatuak izateko, espetxetik atera behar dute".

Abuztuan manifestazioa

Hilaren 21ean, larunbatarekin, "ManiFESTAzioa" izeneko ekimena gauzatuko du Sarek, Donostian.

ZORION AGURRAK



AIA / ANDOAIN
Aner Lopetegui Zatarain
Abuztuaren 10ean 13 urte. Zorionak etxeko guztien, Unaxen eta Oinatzen partetik. Horrela jarraitu futbolaria. Muxuak.



ANDOAIN
Zorionak Maialen
13 atzean utzi eta uztailearen 16an 14garrenaren bila. Ez zaitez inoiz aldatu. Asko maite zaitugu... Aita, ama eta Mikel.



ANDOAIN
Julen Etxeberria Osa
Uztailaren 12an 15 urte handi beteko ditu. Zure anaia eta gurasoen partez, zorionak eta muxu potolo bat! Ondo pasa dezazula...



ANDOAIN
Inge Igariz
Ingek abuztuaren 5ean 14 urte beteko ditu. Zorionak eta ondo ospatu etxeko guztien partetik. Uda ona igaro.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ **Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /**
- ▶ **Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ**

Eskelak Aiurriin: 90 euro

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitez bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez: 619 16 35 37



"Tradizio handiko bertso eskola da Hernanikoa"

EKAIN TOLARETXIPI GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARIEN TXAPELDUNA Hernaniarra da, eta Leizaran institutuko ikaslea. Udazkenean jokatzekoa den Euskal Herriko txapelketa prestatzen ari da, egun

Xabier Lasa ANDOAIN

Urnietan maiatzaren 28an Gipuzkoako finala irabazi eta hurrengo astelehenean zer nolako harrera egin zizuten ikastetxean? Bigarren mailara igo zen Amorebieta futbol taldeko Iñigo Orozko irakasleari eskainitakoaren antzekoa izan al zen?

Ordurako klaseak amaituta geneuzkan, azkeneko azterketa maiatzaren 8an egin genuenetik. Geroztik, behin etorri naiz ikastetxera, eta sarreran, txapela buruan nuela Urnietan atera zidaten argazkia ikusi dut.

Egia esan, ez dakit ezer berezirik egingo zidatenik klasera etortzea egokitu izan balitz txapela irabazi eta gero. Ez dut aste inor askorik enteratuko zenik, futbolak bertsolariak baino gehiago erakartzen baitu, eta zer esanik ez zenbatero oihartzun mediatikoa daukan. Nire kasuan, nire bizitokia den Hernanin, familiakoek, lagunek eta bertso munduan dabilen epaimahaiko batek zoriondu ninduten hurrengo egunetan. Normala hala izatea, Gipuzkoako bertsolari gazteen txapela besterik ez bainen jantzi.

Udazkenerako iragarri dute Euskal Herriko finala. Nolako prestakuntza ari zara egiten, uda tartean egonik? Ispilu aurrean edo...



Ekain Tolaretxipi, Leizaran institutuaren atarian. AIURRI

Hernaniko bertso eskolan entrenatzeko geratu gara, eta beharko dut laguntza hori, nire burua ezagutzen baitut: oporraldietatik batetik itzuli aldiko, beti hotz samar egoten naiz berriro kantatzen hasteko.

Hernanin bertsolariak badauka harrobia...

2017ko Euskal Herriko txapelketan finalisten erdiak (Mendiluze, Gaztelumendi, Agirre eta Lujanbio) Hernaniko eskolatik ateratakoak ziren, eta horrek zerbait esan nahi du! Tradizio handiko eskola, da. Egun, gure

ikasle-taldean laupabost aritzen gara, eta atzetik ere badatoz gazteagoak. Ni txiki-txikitatik joan naiz hazten bertan, eta ondo dakit zenbat lantzen den bertsoarako zaletasuna. Beti eduki izan ditut irakasle onak, Oier Iurramendi, Eli Pagola, Asier Azpirotz, Beñat Mujika eta azken urtetan Andoni Mujika. Guztiek eman dizkidate arazoak esker oneko sentitzeko.

Zer ari zara ikasten Leizaranen? Irailean Batxillergoko bigarren ikasturteari ekingo diot. Gero unibertsitaterako saltoa egin

eta kazetaritzaren bidetik jo nahi nuke. Gogoko dut telebista eta irratia kontsumitzea, eta prentsako iritzi artikulua irakurtzea. Bertso eskolan beti esan izan didate aktualitatea jarraitzea komeni zaiola bertsoan egin nahi duenari, errealismoa eta sakontasuna itsasten diotela bere kantugintzari, eta hala da. Pentsa, esate baterako, Santa Klara irlako eskultura edo Sanchez eta Bidenen arteko el-karrizketa gaitzat jartzen badizkizut, nola erantzungo duzu, horiei buruz tutik ez badakizu? **Plazak egiten hasita al zaude, edo gaztea zara horretarako oraindik?** Publiko zabalaren aurrean oraindik ez. Hernanin antolatzen diren kultur ekitaldietan etxetik prestatuta eramandako pare bat bertso kantatzea egokitu izan zait noizean behin. Bestalde, 14 urterekin hasi nintzen eskolarteko bertsolari txapelketetan, eta normalean, bertso-afarien formatuan antolatu izan dira. Koronabirusa dela eta, aurtengo sariko saioak areto txikietan antolatu dira. Niri Oiartzunen areto txiki batean eta Urnietan Saroben kantatzea egokitu zait. Esan dezaket Urnietakoa izan dela orain arte errespetu handiena sortu didan plaza.

Gazteei komeni izaten zaie beren burua frogan jartzea eta jendaurrekoa lantzea. Alde horretatik, primerakoa iruditzen zait bertsolari konsagratuak eta gazteak batzen dituen Zapla ekimena, herriz herri egiten dena.

"TXIRRITA EDO LAZKAO TXIKIREN BERTSOAK KANTATUKO NITUZKE, ERRESKADAN"

Eta zer moduz ikusi zenuen zeure burua Urnietan, foko, argazki eta bideo kamera, epaimahai eta publiko kopuru zabalaren aurrean?

Urduri hasieran, baina banekien lehen agurra ondo ateraz gero, hortik aurrera jakingo nuela moldatzen, eta lehiaketaren tentsiotik libratzen. Eta halaxe gertatu zitzaidan. Urduritasuna edo erantzukizuna ez zaidala gehiegi nabaritzen esaten didate.

Nondik datorkizu bertsolarietarako zaletasuna?

Familian aurrekari edo eraginak bilatzen hasita, aitortu behar dut gurasoek inoiz ez dutela kantatu edo instrumenturik jo. Hori bai, aitaren kasuan, Tolaretxipi eta Mujika familiek beti izan dute musikarako lotura berezia; ez dira gutxi musika irakasleak, biolin edo piano-joleak... familia horietan. Gure etxean, txiki-txikitatik aditu izan ditut euskal kantarien eta bertsolari zaharren grabazioak, eta aitak eta amonak maiz gogorarazten didate nola umetan aulki-gurpildunean eserita kalean ibiltzen nindutenean, nire ezpainenetik Laboaren edo Leteren kantak irteten zirela. Sei urte nituela, 2009an, amak Belodromora eraman ninduen finalerdi bat entzutera, eta hor hasi nintzen bapateko saioetako bertso batzuk buruz ikasten, azken agurrak batik bat. Memoria landu izan dut asko, eta esate batera, Txirrita edo Lazkao Txikiren bertsoak oraintxe kantatuko nituzke mordoska erreskadana, horretara jarriz gero...

"URNIETAKOA IZAN DA ORAIN ARTE ERRESPETU HANDIENA EMAN DIDAN PLAZA"



HOTEL HK10 HOTELA

Terraza parrillarekin

Gozatu gure parrilladak udako asteburu guztietan K10 hotelarekin

- Ostirala: 20:00-22:30
- Larunbata: 13:00-15:00 / 20:00-22:30
- Igandea: 13:00-15:30

Erreserbak:
943 33 73 57 edo
info@hotelk10.com